

# **BIDENABARKOAN PROIEKTUA**

## **Bidelagun Elkartea**

### **Sarrera**

Bidelagun Elkartek 20 urte baino gehiago daramatza Baztango bailaran eta eskualdean. Erreferente bat da gizarte-konpromisoari dagokionez eta programatutako jarduerak erantzun esanguratsua izan ohi dute inguruan. Egiten diren lanek beti izaten dute eragina inguruko komunikabideetan, gizarte-konpromisoarekiko sentsibilizazioa zabaltzen eta sortzen diren pobrezia berriak ikustarazten laguntzen baitute.

Zentzu honetan ematen ari den egoerari aurre egin nahi dio egitasmo berri bat aurkeztuz: "Bidenabarkoan Proiektua".

### **Justifikazioa**

Gure inguruko gizartean, azken urte hauetan gero eta nabariago dira etxebizitza bat lortzeko dauden zailtasun eta oztopoak. Bidelagun Elkartek errealitate eta pertsona ezberdin askorekin lan egiten du. Jende asko dago gurera etortzen dena etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasunak erakutsiz. Alde batetik etxebizitza huts asko egon arren jabeek ez dituzte alokatu nahi eta are gutxiago eskatzailea kanpotarra dela jakiten dutenean. Nahiago izaten dute etxea saltzea edo prezioak goratzea, jakinez horrela uko egingo diela eskaerari.

Alokatzen diren etxe horietako batzuk, ez dituzte baldintza duinik ez gutxieneko zerbitzurik betetzen: berogailurik edo altzairurik ez, sukaldea atondu gabe, hezetasuna, pintura.

Behartuta daude, leku bat aurkitzen dutenean, pilatuta bizitzera eta horrek eragina du harremanetan, osasunean, emozioetan eta ora har elkarbizitzan sortzen den giroan. Ez badute pisurik aurkitzen kalean bizitzera derrigortuta daude, sarritan gertatzen ohi den bezala; edo bertze tokietara joatera, horrek dakarren lan uzteak eta berriro pobreziaren zuloan erortzeko arriskua areagotuz.

Proiektua ez da berria. Martxan egon zen bi urtez Elizondon bertan, eta urtero hamar bat lagun pasatzen ziren. Garai hartan pisu bat alokatu zen eta boluntario batzuen konpromisoarekin aurrera atera zen.

Orain, ikusita egoera soziala kaskartu dela berriz, bultzatu nahi da gurera iristen diren pertsonak behin-behineko laguntza izan dezaten.

### **Zer egin nahi dugun**

Zailtasunak dituzten pertsonentzat aldi baterako bizitokia eskaintzea.

Egiaztatu ahal izan dugu pertsona batzuek dituzten zailtasunak etxea aurkitzeko. Haiekin batera badira bizi diren giroetatik atera ezinean daudenak, besteak beste, etxebizitza ezagatik. Pertsona hauek, beste ezaugarrien artean, ondoko hauek dituzte:

1. Beste herrialdeetatik etorriak dira eta gurean ez dute sare naturalik.
2. Familiatik kanporatuak izan dira.
3. Egoera ekonomiko eskasa dute.
4. Behin behineko krisi egoerak: emozionalki, fisikoki, sozialki, ekonomikoki.

Aurkezten dugun proiektua herritarrentzako zerbitzuen kateko beste baliabide bat da, biztanleria ahulenari bereziki zuzendua.

### **Helburu orokorra**

Zaurgarritasunean egon daiteken jendeari behin-behineko bizitokia eskaintzea.

### **Helburu espezifikoak**

1. Kulturartekotasun prozesurako tresnak eskaintzea.
2. Zaurgarritasunean dagoen jendea gizarteratze prozesuan laguntzea.
3. Gizarteratzeko tresnak eta/edo formaziorako bideak ezagutaraztea.
4. Jasangarritasuna eta autokontsumoa bultzatzeko tresnak eskaintzea.

## **Espero diren emaitzak**

1. Urtean hamabost bat laguni harrera egitea.
2. Formazioa jaso dute eta lan mundura hurbiltzeko gai izango dira.
3. Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak eta tradizioak ezagutu dituzte.
4. Beren egoera ekonomikoari aurre egin eta laguntzeko gai izan dira baratzeko elikagaiak ekoiztuz.
5. Gizarte autoktonoak proiektua ezagutzen du eta parte hartzen du.

## **Etxearen funtzionamendua**

Etxe horretan sartu behar duenari zer eskatuko zaio:

- Elkarbizitzarako gai izatea.
- Bizi proiektu bat aintzina eraman nahi izatea.
- Kontuan hartuta, era guztietako kasuak ager daitezkeela, ondoko irizpideak hartuko dira:
  - Oro har, harrera indibidualak egingen dira.
  - Bikoteen kasuan, eskualdera ailegatu berriak badira, eta ez badago beste argibiderik, ez dira etxean sartuko. Bestalde, eskualdean sustraitutako jendea bada, eta egiaztatutako ustekabeak tarteko (okupatzen zuten etxea utzi beharra arazo ekonomikoengatik...) baloratuko da salbuespenak egitea. Betiere, ahalik eta berme handienarekin eta gela bakar bat okupatuz.

## **Baliabideak.**

### **a. Bizitokia**

Egitasmo honen oinarria Baztango udalak dituen erabili gabeko eraikin hutsak erabiltzea izango litatzeke, horrek suposatzen duen udalarekiko sinergia eta inplikazioa tarte. Aukera hori ezinezkoa

izango balitz, etxe bat errentan hartzea planteatu beharko ginateke, beti ere diru-laguntzen arabera.

Etxebizitzak gutxienezko ezaugarri batzuk bete beharko lituzke:

- hiru gela.
- komun bat eta bainugela bat.
- egongela bat.
- sukaldea.
- biltegi bat.
- lur eremu txiki bat, bertan edo inguru hurbilean.

#### **b. Giza baliabideak:**

Egitasmo hau Bidelagun Elkarteak kudeatuko du, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen inplikazioa ezinbestekoa da proiektua elkarrekin aurrera ateratzeko.

Bidelagun elkarteko bi boluntariok gutxienez eramanen dute proiektua. Hauen betebeharrak ondokoak izanen dira:

- Harrera egitea.
- Etxea kudeatzea.
- Jendearen jarraipena.
- Ebaluazioa Gizarte Zerbitzuekin batera. (Eranskina 1)

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zereginak ondokoak izanen dira:

- Detekzioa eta harrera.
- Bidelagunekin batera, koordinazioa proiektu pertsonaletan laguntzeko.
- Sistemaren prestazioak jendearen esku jartzea: oinarrizko errenta, enplegu babestua, larrialdietarako diru-laguntzak.
- Ebaluazioa Bidelagunekin batera.

### **c. Kudeaketa:**

Erabiltzaileak aukeratzeko prozedura bi ibilbideei jarraituz gauzatuko da. Alde batetik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak detektatzen dituzten kasuak eta bestaldetik Bidelagun Elkartera zuzenean iristen direnak.

Zeresanik ez dago bien artean sarean lan egitea ezinbestekoa dela prozesu pertsonalak modu egokienean koordinatzeko. Banakako interbentzio plan bat adostu beharko dute hainbat gai jorratzeko: ekonomikoa, lana, etxebizitza, hezkuntza, laguntza legala zein emozionala eta abar.

Alde bakoitzak hautatuko ditu nortzuk izango diren kudeaketa honen eragile egokiak: Bidelaguneko bi boluntario eta Gizarte Zerbitzuetako gizarte langilea edo hezitzaile bat.

Kasua ezagutu bezain pronto, sarea osatzen dutena harremanetan jarriko dira alde batetik, etxebizitza gaia bideratzeko, eta bestetik, lan interbentziorako plan bat elkarrekin osatzeko.

Etxebizitzaren kudeaketarako Bidelaguneko bi lagunek elkarriketatuko dute pertsona, elkarriketarako protokoloa jarraituz (2.eranskina). Etxebizitzan sartzeko azken erabakia Bidelagunen esku dago. Erabaki hau gutxienez bi pertsonen artean hartuko da.

Boluntarioek etxeko funtzionamendua azalduko diote protokoloa jarraituz (3. eranskina) etxebizitza behar duenari.

Boluntarioak gutxienez astean behin erabiltzaileekin mintzatuko dira eguneroko bizitzari buruzko gora beherataz: etxeko martxa, bizikidetza, etxekoekin zein atariko bizilagunekin, zailtasunak, egindako ahaleginak eta beharrak (4.eranskina).

#### **d. Araudia:**

Etxearen erabiltzaileek honako araudi hau derrigorrez bete beharko dute:

- Etxean bere borondatez sartzen da (5. eranskina).
- Pertsonak kontratu moduko bat sinatuko du hilero haren adostasuna azaltzeko.
- Etxean ezin da erroldatu, beste bide batzuk erabili beharko dira.
- Etxean gehienez hiru hilabete eman ahal izanen dute. balizko salbuespenak kasuz kasu baloratuko dira sarea osatzen dutenen artean.
- Etxean egoteagatik ordaindu beharko da. Kopurua sareak erabakiko du. Sartu baino lehen aurreratu beharko dute lehenengo ordainketa eta fidantza bat. Etxea uztean fidantza hori itzuliko zaie, baldin eta gela hartu bezala uzten badute.
- Gela bakoitzak bere giltza izanen du.
- Etxeako mantentze lanak etxean bizi direnen artean zaindu beharko dute eta garbitasuna denen artean txandatu.
- Etxean ez dira bisitarik onartzen.
- Ezin daitezke festarik egin.
- Alkohola, tabakoa zein bestelako drogarik guztiz debekaturik daude.
- Etxeak sareak ezarriko duen ordutegi bat izanen du elkarbizitza errazteko.
- Etxeako espazio eta tresneri guztiak zaindu beharko dira.

#### **e. Finantziazioa:**

- Proiektu honek finantziazio modu ezberdinak aurreikusten ditu: publikoak eta pribatuak. Alde batetik auzolana bultzatuko da

beharrezkoa ikusten denean deialdiak eginez. Beste aldetik, inguruko enpresei proiektuarekiko konpromisoa har dezaten eskatuko zaie, bakoitzak ahal duen eremuan lagunduz, bai materialekin bai lan ordu gutxi batzuk, borondatez eskainiz.

- Bidelagunek etxea hornituko zuen: altzairuak, sukaldeko tresnak, ohatzeko arropak eta abar.
- Bidelagunek "crowdfunding" egitasmoa jarriko du martxan jendearekiko atxikimendua bildu eta proiektuari aurre egiten laguntzeko.
- Tonbola eta zozketa solidarioak antolatu.
- Bankuen proiektuarekiko nolabaiteko atxikimendua bultzatu beraien laguntza eskatuz, diruz nahiz materialez.

Eta horrela, goizero, amets bat ekartzen dut loalditik (Neruda)





